



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2022ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, uztailaren bostean, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatua zena** : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 1a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 1a

### **8. ERABAKIA: PIKALDE HERRIKO BIDEKO ZATI BATEN BESTELA SAILKATZEA ETA ALIENATZEA** (3.5 nomenklatura)

Auzapezak azaldu du, herriko Pikalde bideko zati bat lekuz aldatzeko eta lehengo eremua bestela sailkatzeko eta alienatzeko proposamena egin dela, eta 2022ko maiatzaren 16ko ordenantza bidez izendatu duen Pierre Laffore inkesta komisarioari eskatu diola inkesta publiko baten egitea.

Txosteneko agiri guztien berri ukanik; inkesta denboran bildu adierazpen, ohar eta erreklamazioak eta inkesta-komisarioaren ondorioak irakurririk;

Legeak behartzen dituen izapide guztiak bete direla kontuan hartuz;

Proiektuaren kontrako erreklamaziorik egin ez dela kontuan hartuz;

Inkesta komisarioaren aldeko iritzia kontuan hartuz;

ARRAZOI GUZI HORIENGATIK,

Herri Biltzarrak,

**Honakoa ERABAKI DU aho batez:**

- Herriko Pikaldeko Bideko zati baten lekuz aldatzea,
- lehengo eremuaren bestela sailkatzea eta alienatzea,
- guztia erantsia den katastro planaren arabera;

- 247 ca-ko azalera baten eskuratzea, zeina Jean-Pierre TROUNDAY jaunarenak diren F 1243p, 1249p eta 1453p lur sailetatik erantzi beharko den, eremu berriaren osatzeko;
- Jean-Pierre TROUNDAY jaunari 202 ca-ko azalerako lehengo eremua uztea;
- Jean-Pierre TROUNDAYekiko operazioa 6,75 euroren truke egitea (0.15 euro/m<sup>2</sup> x 45 m<sup>2</sup>) ORTZAIZE herriak ordaindua.

**Auzapezari ESKATU DIO** ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guzien egitea, besteak beste herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzea, eta horretarako salmenta agiria egitea.

**ZEHAZTU DU**, notario edo administrazio gastuak eskaera egin duen norbanakoaren gain direla.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEEn, 2022ko uztailaren 5ean  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2022/07/08an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/07/08an.